

DATU OROKORRAK

Gestorea: Caja Laboral, Coop. De Crédito
Gordailuzaina: Caja Laboral
Administrazio-gastuak: % 1,40
Hasierako gutxieneko ekarpena: > 30,00 euro


INBERTSIO POLITIKA

Planaren zorroa honako helburu honekin inbertituko da: partaideek hartutako arriskuaren arabera errentagarritasuna lortzea 2040. urteko epemugan. Helburu horrekin, inbertsioa dibertsifikatu egingo da nazioarteko errenta finkoko eta errenta aldakorreko aktiboen artean, indarrean dagoen legeriak inbertsioen alorrean ezarritakoa betez. Denborak aurrera egin ahala, arriskuaren profila txikituz joango da; hortaz, planaren arriskua eta bezeroarena ere txikituz joango dira.

OSAERA


- ☐ **Errenta aldakorra:** % 50 Eurostoxx 50 / % 50 Standard & Poor's 500
- ☐ **Errenta finkoa:** Zor publikoa (BBB+)
- ☐ **Likidezia:** Kontu korrantea eta epe laburrean berrerosteko eragiketak.

Gestio-helburua: zorroan arriskuko errenta aldakorrean egindako inbertsioaren ehunekoa pixkanaka murrizten joatea, eta epe luzeko (25 urteko) errentagarritasunaren pisua handitzea; aldi berean, planaren muga-egunetik gertuko epemuga duen errenta finkoko zorroan inbertituko da, ahalik eta errentagarritasun handiena lortzeko.



Errenta aldakorra unean-unean gestionatuko da, planaren muga-eguna iristeko falta diren urteen arabera, eta finantza-merkatuen aurreikuspenen arabera. Diagraman ikus daiteke errenta aldakorrak unean-unean gehienez izango duen pisua. Dena dela, talde gestoreak aldaketak egiteko aukera izango du: batetik, errenta aldakorrari esleitutako pisua aldatu eta gehienez % 15eraino murrizteko; eta, bestetik, merkatu bakoitzak (Europak/Estatu Batuek) zorroan duten ehunekoa aldatzeko.

ARRISKUAK



Epemuga hurbildu ahala, planaren arrisku osoa gutxituz joango da, diagraman ikus daitekeen bezala. Batetik, aurreikusitako batez besteko hegazkortasuna jasotzen du eta, bestetik, Laboral Kutxak unean-unean aurreikusitako arrisku-maila.

Kreditu-arriskua: Errenta finkoko aktiboen jaulkitzaileak tronkoa eta interesak ordaintzerik ez izateko arriskua da. Planean, arrisku hori arina da, gaur egun BBB+ ratinga duen zor publikoko aktiboek osatzen dutelako errenta finkoko zorroa.

Merkatu-arriskua: Inbertsioen xede diren errenta finkoko eta aldakorreko aktiboen prezioek izan ditzaketen gora-beheren ondoriozko arriskua da. Arriskua aktiboki gestionatzen da; hau da, planaren hasieran, errenta aldakorreko aktiboetan inbertitzen da; ondoren, horien orde, mugaegunetik hurbileko amortizazio-epea duten errenta finkoko aktiboetan.

Arriskua oso handia da hasieran, errenta aldakorraren ehuneko handiagatik eta errenta finkoko zorroaren iraupen luzeagatik; ondoren, arriskua txikituz doa denborak aurrera egin ahala.

Likidezia-arriskua: Kapitalizazio txikiko baloreetan eta/edo tamaina txikia edo kontratazio-bolumen mugatua duten merkatuetan inbertitzearen arriskua da. Horrek prezio-baldintzetan eragin negatiboak izan ditzakeenez, fondoa behartuta egon daiteke posizioak saldu, erosi edo aldatzera.

Planaren likidezia-arriskua oso txikia da, inbertsioa xede duten aktiboek likidezia handia dutelako. Hortaz, inbertsio-erabakiak azkar eta merke har daitezke.

KONTZEPTUEI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hegazkortasuna:

Fondoaren likidazio-balioek historian zehar gorabehera handiak izan dituzten edo, aitzitik, bilakaera egonkorra izan duten argitzen digu hegazkortasunak. Plan oso hegazkor batek ziurgabetasun eta arrisku handiagoak ditu, haren likidazio-balioa igo edo jaitsi egingo den aurreikustea oso zaila baita. Hortaz, errenbultsoa egiteko unean, litekeena da irabazi handiak edo galera nabarmenak izatea. Lortutako errentagarritasunen eta batez besteko errentagarritasun historikoaren arteko aldea neurtzen du.

Honela sailka genezake:

% 0 - 0,05eko hegazkortasuna	Oso txikia
% 0,06 - 2ko hegazkortasuna	Txikia
% 2,01 - 4ko hegazkortasuna	Ertaina
% 4,01 - 10eko hegazkortasuna	Handia
> %10eko hegazkortasuna	Oso handia

Arrisku-maila:

Laboral Kutxak produktu honetarako estimatzen duen arrisku-maila zehazten da.

Errenta finkoa:

Iraupena (interes-tasa) urtetan: Errenta finkoko aktiboek interes-tasen gorabeheren aurrean duten sentikortasuna neurtzen du iraupenak. Zenbat eta luzeagoa izan, are handiagoa izango da interes-tasen aldaketek errenta finkoko aktiboetan eta, beraz, fondoaren planaren likidazio-balioan duten eragina. Hala, iraupenak fondoaren balio-igoera interes-tasen jaitsierarekin lotzen du. Eta, kontrako kasuan, interes-tasak igoz gero, iraupenak fondoaren balio-galera adierazten du.

Ratinga: Standard & Poors rating-agentziak emandako kreditu-kalifikazioa da. Kredituaren kalitatea edo jaulkitzaile batek mailegua itzultzeko duen gaitasuna neurtzen du. Oro har, aktiboen ratinga AAA eta D bitartekoak dira. Lehenak adierazten du jaulkitzaileak bere finantza-betebeharrak betetzeko ahalmen handia duela eta bigarrenak, berriz, konpromisoak ez betetzeko arrisku handia dagoela.

STANDARD & POORS RATINGAK

AAA	Kalitaterik oneneko jaulkipenak.
AA	Kalitate handiko jaulkipenak.
A	Unean uneko aldaketak izan ditzakeen jaulkipenak.
BBB	Egoerari lotutako arazoak izan ditzaketen jaulkipenak.
BB, B, CCC, CC, D	Errendimendu gutxiko bonoak (high yield). Errentagarritasun handia, kalitate txikia